

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARABAKO ERRIOXAKO KUADRILLA

Presidentziaren 2026-90 Ebazpenaren jakinarazpena, Bilar eta Lapuebla Labarca udalerrietan abandonatutako ibilgailuak udal-hondakin deklaratzeko prozedura hastekoa

2026/686/S02.01.02.01 eta 2026/642/S02.01.02.01 espedienteak.

Ezin izan zaie banan-banan jakinarazi Lehendakartzako 2026-90 Ebazpena, 2026ko uztailaren 21ekoa, zeinaren bidez erabakitzen baita hasiera ematea Bilar eta Lapuebla Labarcako udalerrietan ustez abandonatuta dauden zenbait ibilgailu udal-hondakin gisa deklaratzeko prozedurari. Hori dela eta, iragarki honen bidez jakinarazten da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 44. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Hauek dira prozeduren xede diren ibilgailuak:

1. Bilarko udalerria:

- Marka eta modelo: SEAT Córdoba.
- Matrikula: 3509 BXL.
- Aparkalekua: Cerro kalearen ondoko orubea.

2. Lapuebla Labarca udalerria:

- Marka eta modelo: Peugeot 406.
- Matrikula: M-2487-YT.
- Aparkalekua: Sotoko Bidea kalea.

Presidentziaren ebazpen horren bidez, lehen aipatutako ibilgailuak udal-hondakin gisa deklaratzearen egokitasuna zehazteko administrazio-prozedura hastea erabaki zen.

Era berean, ibilgailu horien titularrei edo, hala badagokio, haien gainean eskubideak dituztenei eskatzen zaie hamabost (15) egun naturaleko epean ibilgailu horiek beren borondatez kentzeko edo alegazioak egin eta beren eskubideak defendatzeko egokitzea jotzen dituzten dokumentuak edo justifikazioak aurkezteko.

Hamabost egun naturaleko epe hori jakinarazpen-iragarkia Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuko da, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 44. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Interesdunei berriaz ohartarazten zaie ezen, emandako epea igaro ondoren, ez badute ibilgailua kentzen eta abandonu-egoera indargabetzen duen alegazio nahikorik aurkezten, ebazpena eman ahal izango dela, eta ibilgailua udal-hondakintzat joko dela. Halaber, ibilgailua erretiratzeko eta tratamendu-zentro baimendu bati entregatzeko agindu ahal izango da, betearazpen subsidiarioaren bidez, hala dagokionean, eta eragindako gastuen erantzuleei eragingo die, aplikatu beharreko araudiaren arabera.

Presidentziaren 2026-90 Ebazpena eta dagozkion administrazio-espedienteak interesdunen eskura daude Arabako Errioxako Kuadrillako bulegoetan, eta bertan agertu ahal izango dira, jakin eta kontsulta ditzaten.

Jakinarazpenaren xede den ebazpena izapide-egintza bat da, eta, beraz, haren aurka ezin da administrazio-errekurtsorik jarri. Hala ere, interesdunek egoki iritzitako alegazioak egin ditzakete, prozedurari amaiera ematen dion ebazpenean kontuan har daitezen, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 112. artikulua arabera.

Laguardian, 2026ko irailaren 3an

Presidente

JOSE MARIA ELVIRA CEBALLOS